

# III CENTENARIO DEL "QUIJOTE"

GLORIA A CERVANTES

---

## CERVANTES



Gizon aztuezgeni onen oroimenetako luma arrastarabi

Iya berataz iñor  
oroitzen etzala  
lanean aritzen zan  
jaun au bizi zala;  
Quijote izkribatzen  
erotzat zeguala,  
ganbara sar bat bere  
lan toki zeukala,  
askotan zer janikan  
ere etzeukala.

Bañan gero jakinda  
zanean il zala,  
edo lotan betiko  
gelditu baitzala,  
España guziyan

jo zan atabala,  
aren bullaz lotatik  
esnatu nai zala;  
paper denak famatu  
zuten beriala,  
gizon oso balio  
aundiko bat zala  
lumaz bere igualik  
izan ezbeitzala;  
eta leku denetan  
bai mendurik ala,  
maillik goititunean  
jartzeko goizala,  
erabaki zan bronzex  
beraren iguala  
egiñik illa berriz  
pistu bear zala,  
lurrak bere lenboan  
gorde etzezala  
zutik mundu guziyak  
ikusit zezala.

Sinista zagun denok  
gezurra ezdala,  
santu egiteko il  
egin beardala.

RAMÓN ARTOLA.

\* \* \*